

Arartekoaren 2018R-1820-16 Ebazpena, 2018ko otsailaren 6koa. Horren bidez, Sopelako Udalari gomendatzen zaio dagozkion neurriak har ditzala ostalaritza-establezimenduak batek eragindako eragozpenak saihesteko.

Aurrekariak

1. Sopelako bizilagun batek behin eta berriz jo du Arartekora salatzeke bere etxearen azpian dagoen ostalaritza-establezimenduaren funtzionamendu irregularrak eragiten dizkion zaratagatiko eragozpenak.
2. Gai bera aurreko urteetan tramitatutako zenbait espedientetan aztertu da: 224/1993/QC, 631/2010/QC, 1370/2012/QC, 1309/2013/QC eta 1309/2014/QC zenbakiko espedienteetan, hain zuzen ere. Arartekoak egindako errekerimenduei erantzuteko jasotako txosten ugarietatik ondorioztatu da Sopelako Udalak eskatu duela zuzendu daitezela detektatu diren eta jarduera horren funtzionamenduak eragindakoak diren gabeziak.

Hala ere, kexagileak jarraitu du salatzeko jarduera horrek oraindik ere eragiten dizkion kalte larriak.

Kexagileak planteatutako gai guztiak konpondu ahal izateko, Arartekoak komenigarritzat jo du nabarmentzea bere aurrean aurkeztutako kexak tramitatzean establezimendu horri buruzko frogatuta geratu diren gertakari esanguratsuenak.

3. Aipatutako establezimendua 1982an hasi zen jardunean, eta behar bezala legeztatuen, Jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen Araudiari buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan (Estatuko Aldizkari Ofizialeko 292. zenbakian argitaratua, 1961eko abenduaren 7an) aurreikusitakoari jarraituz.

Hala, 1982ko uztailaren 23an, jarduera gogaikarri gisa sailkatu zen, eta ezarri ziren diskoteka gisa funtzionatzeko establezimenduak bete behar zituen neurri zuzentzaileak.

4. Jardueraren hasieratik, etengabe aurkeztu dira salaketak Sopelako Udalean, lokaletik irtendako gehiegizko soinu eta bibrazioengatik, baita lokalaren aireztatze sistemaren funtzionamendu irregularrak ateratzen dituen etengabeko burrunbagatik ere.
5. Jasotako lehenengo salaketen ildotik, Sopelako Udalak, 1983an, hainbat neurri hartzeko exijitu zuen, zarata-transmisioa eta sortutako aire kaltegarrien emisioa saiheste aldera.

Zehazki, lokaleko soinu-ekipoetan mugagailuak jartzeko exijitu zuen, eta zenbait hobekuntza gauzatzeko, aireztatzeko-sistemako hodietan zein garai hartan lokalak zeukan aire girotuko sisteman. Halaber, exijitu zuen lokalaren kanpoko fatxadan jarritako saretetako zuloak ixteko. Azkenik, lokalaren sarbidean ate bikoitza jartzeko exijitu zuen, hura ixtea errazteko, eta lokalaren barnealdeko soinuaren balizko eragina murrizteko.

6. 1984an salaketa gehiago jasotzean, Sopelako Udalak ikusi zuen ez zirela gauzatu exijitutako neurriak. Horregatik, berriz ere exijitu zuen haiek betetzeko.
7. 1987ko urtarrilaren 8an, jarduera dantzaleku bihurtu zen, eta, horren ondorioz, foru aldundiak neurri zuzentzaile berriak ezarri zituen Bizitegitarako hiri- lurzoruan ezarriko diren jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuei aplikatu behar zaizkien arau tekniko orokorrak onesten dituen

Horretarako, txostenak eskatu zuen honako neurri zuzentzaile hauek hartzeko:

- A. *"El anclaje de la maquinaria se efectuará con elementos antivibratorios.*
- B. *Se evitará la transmisión de vibraciones a la estructura del edificio, locales y viviendas próximas.*
- C. *La ventilación del local se efectuará sin producir molestias en el vecindario y de acuerdo con la totalidad de las condiciones expresadas en el proyecto. Se prohíbe el uso de cocina.*
- D. *Insonorización total del local a fin de que no sobrepasen los 40 y 30 dB(A) en nivel continuo equivalente leq en un minuto, ni los 45 y 35 Db(A) en valores máximos en punta en los dormitorios, cocinas y salas de estar a partir de las 8 y 22 respectivamente, así como se instalará suelo flotante en zona de baile. Todo ello, sin perjuicio de la Normativa Municipal existente, de forma que no sobrepasen los 90 DB(A) medido en cualquier punto del local.*
- E. *Se instalará una doble puerta de acceso con cierre automático formando ambas un ángulo de 90", de manera que constituyan un vestíbulo cortavientos con el fin de evitar la transmisión sonora al exterior, deberán permanecer cerradas constantemente garantizando el cierre hermético con antichoque".*

8. Xedatutakoa betetze aldera, Sopelako Udalak, Alkatetzaren 1987ko urriaren 27ko ebazpen baten bidez, agindu zuen proiektu tekniko bat aurkez zezatela aurreko baldintza teknikoak bete izana egiaztatzeko.
9. Jardueraren sustatzaileak 1993ra arte ez zuen aurkeztu errekeritutako proiektu teknikoa. Hala ere, urte horietan guztietan zehar, jarduerak jarraitu zuen baldintza berberetan funtzionatzen, exijitutako neurrietara egokitu gabe.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 1993ko apirilaren 22an, bidezko neurketak egin zituen egiaztatzeko lokala egokitzen zenetz exijitutako neurrietara. Hala, ikusi zen lokalak errespetatzen zituela araudietan ezarritako soinu-immisioko gehieneko mailak. Hala ere, jakinarazi zitzaion musika-ekipoek sorturiko soinu-bolumena ez zela 85 dB(A) baino handiago izan behar, aldameneko bizilagunei eragin liezaieken soinu-eragina murrizteko. Halaber, lokalak aire kutsatuak isurtzeak eragindako kalteak zuzentzeko, Foru Aldundiak aireztatze-sistema berria jartzea proposatu zuen, zeina diskotekako eta dantzalekuko jarduerak eduki behar baitute publikoarentzako azalera 150 m² baino handiagoa denean ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren 2. kapituluko 3.1.3. artikulua ezartzen duenaren arabera. Horretarako, airea ateratzeko hodi bat instalatu behar zen, hodi independente baten bidez, teilatu- hegaletik 2 m gorago, eta airea hartzeko eta kanporatzeko behar bezalako sistemak erabili.

10. Aldundiaren txostenari jarraituz, Sopelako Udalak exijitu zuen lokaleko soinu-ekipoak mugatu zitezela 85 dB(A) ez gainditzeko, 1993ko urriaren 2ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez.

Dena den, udalaren kalkuluen arabera, publikorako azalera 150 m² baino txikiagoa zen. Horregatik, Sopelako Udalak erabaki zuen ez zegoela aireztatze-sistema aldatu beharrik, aldundiaren 1987ko urtarrilaren 8ko lehenengo txostenean (8. aurrekaria) exijitutako hobekuntzak gauzatzearekin nahikoa baitzen.

Ebazpen hartan, Sopelako Udalak adierazi zuen gaueko ordutegiko udaltzaingo-zerbitzurik ez zeukanez, Ertzaintzaren laguntza eskatu zuela jardueraren itxiera-ordutegia eta lokalerako sarbide-ateak ixten zirela kontrolatzeko.

11. 2006an jarduerak sortzen zituen kalte larriengatik salaketa gehiago jaso ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak berriz ere ikuskatu zuen lokala, eta ikusi zuen udalaren ohartarazpen ugariak gorabehera, ez zirela bete aurreko exijentziak ere.

Aldundiaren txosten berri baten bidez (2006ko uztailaren 27koa) azpimarratu zen jarduera garatzen jarraitzeko jarduera egokitu behar zela legezketasunera. Horretarako, xedatu zen jardueraren sustatzaileak hilabeteko epean aurreztu beharko zuela proiektu tekniko bat egiaztatzeko aireztatze-sistema aldatu zuela, 1993ko txostenean adierazi bezala (11. aurrekaria). Halaber, zehaztu zen fabrika- obraz itxi behar zela eraikinaren saretan zegoen zuloa. Azkenik, eskatu zitzaion aireko zaratarekiko isolatze orokorreko mailari buruz jarduerak zuen ziurtagiri homologatua.

Era berean, Foru Aldundiak Sopelako Udalari gogorarazi zion esku hartzeko betebeharra zuela jarduera horrek sortutako kalte larriak konpontzeko. Horrenbestez, azpimarratu zuen jardueraren sustatzaileak behin eta berriz egindako ez-betetzeen ondorioz, udalak aplikatu beharko zituela Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean jasotako prebentzio-neurriak eta ingurumen-diziplinako neurriak. Areago, adierazten zuen udalak subsidiarioki gauzatu zitzakeela lehen eskatutako neurriak, al bait lehen saihesteko egiten ari zen ingurumen-kaltea.

12. Hala eta guztiz ere, aldundiaren txostenean xedatutakoa gorabehera, Sopelako Udalak, abenduaren 15eko 1019/2006 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren bidez, jardueraren sustatzaileari agindu zion lehenago eskatutako proiektu teknikoa aurkezteko, eta ez zuen hartu lehen adierazitako ez prebentzio- neurririk ez hertsapen-neurririk.

2007ko martxoaren 8an, udal-teknikariek lokala bisitatu zuten, egoera egiaztatzeko eta salatutako zaratak egiaztatzeko. Udalaren kontrolean, ez zuten bibraziorik antzeman ez hormetan, ez eraikinaren zutabeetan; baina, hala ere, ez zuten egin ez neurketarik ez probarik sortutako zaratak zentzuzko objektibotasun-egoeran zehazteko. Halaber, ez ziren egiaztatu ikusi ziren gainerako gabeziak. Nolanahi ere, jasotako salaketei erantzuteko, Sopelako Udalak, 2007ko uztailaren 24ko 655/2007 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, berriz ere eskatu zuen errekeritutako proiektu tekniko hura aurkezteko.

13. Jardueraren sustatzaileak epaitegian errekurritu zuen uztailaren 24ko 655/2007 Dekretua. Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren urriaren 27ko 328/2009 epaiak ezetsi egin zuen aurkeztutako errekurtsua, eta aurreko ebazpenaren balioa berretsi zuen. 2010eko urtarrilaren 22an ebazpen hori irmotzat jo zen.

14. Lehen azaldutakoa ikusita, Sopelako Udalak berriz ere eskatu zuen lehen eskatutako neurriak betetzeko, 2010eko ekainaren 9ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez.

2010eko ekainaren 24an, jardueraren sustatzaileak eskatua zitzaion proiektu teknikoa aurkeztu zuen, zeinean zehaztuta baitzeuden lokalean aurreikusitako aldaketak. Halaber, nahitaezko baimena eskatu zion auzotar-erkidegoari tximinia aldatzea baimentzeko, eta nahitaezko obra-lizentzia eskatu zuen. Aurkeztutako dokumentazioaren egokitasuna aztertuta, Sopelako Udalak nahitaezko obra-lizentzia eman zion aurreikusitako eraldaketak egiteko, 2010eko uztailaren 13an.

2010eko irailaren 7an, udalak egiaztatu zuen tximinia aldatu zela. Hala ere, ikusi zen eraikinaren kanpoaldean jarritako sareta ez zutela itxi, exijitzen zenaz bestera, igeltsuz eta kartoizko panelez estali baino ez baitzen egin. Horregatik, berriz ere exijitu zen hura konpontzeko, irailaren 20ko 1070/2010 zenbakiko Udal Ebazpenaren bidez.

15. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2010eko irailaren 23ko beste txosten baten bidez, egiaztatu zuen aurkeztutako neurketek ez zutela balio, falta baitzuten beharrezko homologazioa. Horregatik, egokitze jo zuen neurketak berriz ere egitea, hala, modu frogagarrian egiaztatzeko lokalaren isolatze akustikoaren maila, eta eragindako eragozpenen maila. Aldundiaren txostenak adierazten zuen Sopelako Udalak egin beharko lituzkeela neurketa berriak, atzerapen gehiago saiheste aldera.

16. Foru erakundeak ohartarazpen horiek egin bazizkion ere, Sopelako Udalak berriz ere eskatu zion jardueraren sustatzaileari egin zitzala neurketa berriak, eta, bitartean, ez zuen ezarri inolako murriztapenik eragiten ari zen eragozpenak saihesteko edo, behintzat, gutxiagotzeko.
17. 2010eko azaroaren 17ko beste udal-txosten baten bidez, egiaztatu zen tximinia berria egokitu zela, eta egiaztatu zen zuzendu zirela eraikineko saretetan aurkitutako gabeziak. Bestalde, jardueraren sustatzaileak aurkeztutako neurketan, ageri zen jarduerak 63,9 dB(A) eta 64 dB(A)-ko isolamendu akustikoa zeukala.

Isolatze-maila horiek txikiagoak ziren Sopelako Udalaren Lizentzien araubideari eta prozedura-arauei buruzko 2006 irailaren 11ko ordenantzan diskoteka, dantzaleku, kafe-antzoki, kasino, music hall, bingo eta antzekoetarako jasotakoak baino.

Hala eta guztiz ere, jarduera kalifikatzeko txostenean, ez zen zehaztu isolatze-maila zehatza lortu behar izatea. Halaber, egindako probek erakutsi zuten bibrazioek eta soinu-emisioek —ekipoetan 85 dB(A)-ko mugari eutsita- errespetatzen zituztela jarduera berrietarako zarata-immisiorako aplikagarriak ziren mugak, zeinak jasota baitzeuden Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei buruzko alderdien inguruan garatzen duen 1367/37 Errege Dekretuak. Horregatik, Sopelako Udalak ondorioztatu zuen aipatutako jarduerak betetzen zituela 1987ko urtarrilaren 8ko urteko jardueraren kalifikazio-txostenean (8. aurrekaria) zehaztutako baldintzak.

18. Aurreko guztia gorabehera, aldameneko bizilagun batek jarraitu zuen eragindako kalteak salatzen, eta azpimarratzen zuen aireztatze-sisteman hobekuntzak egin arren oraindik isurtzen zirela aire kaltegarriak sarrera-hallean jarritako difusoretik, lokalaren sarrerako sabai aizunaren artean jarritako saretatik eta establezimendura sartzeko atearen pertsianatik.
19. Aurkeztutako salaketak zirela eta, 2013ko abuztuaren 5ean, Sopelako Udalak ikusi zuen zuzenak zirela aireztatze-sistema berriaren kokapena eta antolaketak. Hala ere, establezimenduak sabai aizuna zuenez, ezin zuen eraginkortasunez egiaztatu airea ateratzeko adar guztiak aireztatze-sistema berrira konektatzen zirenik. Horregatik, Sopelako Udalak berriz ere errekeritu zion jardueraren sustatzaileari egiaztatzeko kutsatutako aire guztia instalazio berritik erauzten zela.

Jardueraren sustatzaileak aurkeztutako frogetatik, ondorioztatu zen benetan bazirela zenbait gabezia establezimenduko aire kutsatuak erauzteko sisteman. Horregatik, 2014ko otsailaren 24an, jardueraren sustatzaileak beste obra-lizentzia bat eskatu zuen Sopelako Udalean, aurkitutako gabeziak konpontzeko eta instalazio berrira konektatzeko establezimenduak zituen airea berriztatzeko eta girotzeko adar guztiak. 2014ko martxoaren 3an, Sopelako Udalak, eskatutako obrak hasteko arazorik ikusi ez zuenez, nahitaezko baimena eman zuen ezarritako hobekuntzak egiteko.

20. Lokaleko aire kutsatuek eragindako eragozpenek ukitutako bizilagunen kexen ondorioz, Sopelako Udalak enpresa tekniko bat kontratatu zuen behin betiko egiaztatzeko lokalaren aireztatzeko eta aireak erauzteko sistemaren funtzionamendua.

2014ko abenduaren 5ean emandako txosten teknikoak, honako egoerara hauek egiaztatu zituen:

- *“No se detectó expulsión, ni extracción de aire viciado en la fachada exterior del edificio, ni en la rejilla de la persiana de cierre exterior del local*
- *Se demostró que todos los flujos de evacuación y/o extracción de aire se reconducían por el único conducto que disponía el sistema de ventilación que discurría desde la salida de garaje hasta a la cubierta del edificio por el patio interior.*
- *Se observó que el equipo utilizado para climatizar la zona de pista no funcionaba por encontrarse en desuso y que el difusor ubicado en el hall de entrada estaba anulado.*
- *Se verificó que el funcionamiento del resto de difusores era correcto.*
- *En todo caso, todos los conductos debían ser en medida de lo posible estancos por lo que cualquier abertura que no se correspondiese con los elementos de difusión debía quedar permanentemente sellados”.*

Azterketa horretan lortutako emaitzak ikusita, 2015eko urtarrilaren 8an, Sopelako Udalak erabaki zuen lokalaren aireztatzeko eta aireak erauzteko sistemak egokiak zirela, eta, horrenbestez, legeriak jasotako exigentzietara egokituta zeudela.

21. Hala ere, kexagileak berriz ere salatu zuen jardueraren sustatzaileak aire- irteera bat ireki zuela garaje komunitarioaren sabaian, lokalaren zoruarekin konektatuta, eta hura zabaldu eta itxi egiten zuela, tapa baten bidez, haren ustez, lehen kendutako hozte-sistemak funtzionatu ahal izateko. Horren froga gisa, zenbait argazki aurkeztu zituen. Horregatik, salatzen zituen lehen kendutako hozte-sistemak eragindako kalteak. Sopelako Udalak, salatutako azken gertaerak egiaztatu ondoren, alkatetzaren beste ebazpen baten bidez (2015eko maiatzaren 6koa), agindu zuen itxi zedila garajearen zegoen hustubidea eta konpon zitezela eragindako kalteak.

22. 2016an, eragindako bizilagunek berriz jo zuten Ararteko erakundera, eta nabarmendu zituzten “(...)” izeneko oraingo jarduerak eragindako eragozpenak.

Aldi horretan, alegatu zuten azken urtean titulartasuna aldatu ostean berriz ere hasi direla airea girotzeko sistemak eragindako eragozpenak, beren ustez, berriz ere hasia baitzen gaueko ordutegian funtzionatzen, eta horren ondorioz ezin zuten loak hartu. Halaber, nabarmendu zuten lokaleko musikaren eta lokalean aldiro-aldiro egiten bide diren kontzertuen bolumen handiak eragiten zuen soinu-eragin handia. Horrez gain, ziurtatu zuen jarduerak modu sistematikoan ez zuela itxiera ordutegia betetzen.

23. Arartekoak egindako azken gestioei erantzuteko, Sopolako Udalak, beste txosten baten bidez (2017ko urriaren 19koa), nabarmendu zuen jarduera behar bezala legeztatuta zegoela, eta betetzen zituela Bizkaiko Foru Aldundiak 1987an emandako kalifikazio-txostenean (8. aurrekaria) ezarritako neurri zuzentzaileak.

Gainera, seinalatzen zuen ez zuela frogarik ez titulartasunean ez orientazioan inongo aldaketarik egon zenik establezimenduan.

Halaber, eragindako zarata-eragozpenak zirela eta, azpimarratu zen frogatutzat jo zenaren arabera 2010ean egindako azken neurketetan (22. aurrekaria) jarduerak errespetatu zituela 1987ko kalifikazio-txostenean ezarritako gehieneko emisio-balioak. Gainera, lokalaren musikak eragin litzakeen soinuaren gehiegizko bolumena saihesteko, oraindik mantentzen zuen 85 dB(A)-ko soinu-muga lokaleko soinu-ekipo guztietan. Hala ere, 2017ko otsailaren 17an egindako udal-kontrol batean egiaztatu zen lokalean kontzertu bat egin zela horretarako behar zen baimena lortu gabe, eta soinu ekipoek ez zituztela zegozkien ainguratzeak eta mugagailuak. Hala eta guztiz ere, kontzertua egiten jarrai zezatela utzi zieten inolako mugarik jarri gabe.

Lokaleko aire kutsatuek eragindako eragozpenak zirela eta, lehen aipatutako 2014ko abenduaren 5eko txosten teknikoan adierazi zenaren arabera (26. aurrekarian aipatua), zuzenduta geratu ziren aireztatze-sisteman antzemandako irregulartasunak. Gainera, txosten horretako argazkiak azken ikuskapenean egindako argazkiekin alderatu ondoren, ez zen ikusi eraldaketarik egin zenik sistema horretan. Horrela, aldaketa nabaririk ezean, eta instalazioko aire kutsatuei buruzko salaketa berririk jaso ez zenez, ondorioztatu zen funtzionamendua zuzena zela, nahiz eta aldi horretan ere ez zen inolako probarik egin hura egiaztatzeko.

Nolanahi ere, 2016ko azaroaren 7an, jardueraren sustatzaileak obra txikietarako baimena eskatu zuen, zenbait aldaketa egiteko hornikuntzen banaketan eta establezimenduko banaketa nagusietan. Hala ere, jasotako zenbait dokumentutan seinalatu zen 2017ko irailean egindako azken kontrolean egiaztatu zela lokalean eraberritze-lanak egin zirela, baina ezin izan zela zehaztu zenbaterainoko aldaketak egin ziren, ez baitzegoen, ez nahitaezko obra-lizentziaren kopiarik, ez aurreko argazki-dokumenturik, establezimenduaren orduko egoerarekin alderatzeko. Dena dela, jatorrizko proiektuaren arabera, ematen zuen bakarrik eraldatu zela lokaleko eserlekuen eremua.

Ikuskapenean, halaber, egiaztatu zen sarbide-ateak zabalik zeudela. Gainera, lokalaren arduradunek adierazi zuten ez zutela ia erabiltzen aire girotuko sistema, ezta lokaleko klimatizazio-sistema ere -lehenago kendua zen-, lokala haizeberritzeko normalean aprobetxatzen baitzuten lokalera sartzeko ateak eta larrialdiko ateak zabaltzean sortzen zen aireztapen gurutzatua. Egindako bisitan, udal-teknikariek gogorarazi zieten lokaleko ate guztiek itxita egon behar zutela, lokalaren barruko soinuaren transmisioa saihesteko.



Eraikinaren satora sartzeko jarritako zailtasunen ondorioz, bi egun geroago eraikinaren satora sartu ziren, eta lokaleko klimatizazio-sistema zaharkituta zegoenez, ulertu zen ez zela berriki aldaketarik egin instalazio hartan, eta ondorioztatu zen instalazio hura ez zebilela. Horregatik, ondorioztatu zuten bizilagunek salatutako burrunba eta zaratak ez zetoze klimatizazio-sistema horretatik, ezta lokaleko aire girotuko sistematik ere. Hala eta guztiz ere, aldi horretan ere ez zen egin, ez probarik, ez kontraste-neurketarik ere.

Gainera, ikusi zen sukaldea funtzionamenduan ari zela, nahiz eta 1987ko kalifikazio-txostenean hura debekatu zen.

Azkenik, azpimarratu zen jarduerak bete behar zituela araudiaren arabera ezarritako itxiera-ordutegiak.

Emaitza horiek gorabehera, Sopelako Udalak, 2017ko urriaren 22ko ebazpen baten bidez, hau baino ez zuen egin: jardueraren sustatzaileari gogorarazi zion emandako lizentzian ezarritako baldintzetara egokitu behar zela jarduera, eta errekerimendua egin zion hilabeteko epean aurkezteko lokalean egindako aldaketa eta eraberritzeen zerrenda, teknikari eskudunak sinatutako dokumentu baten bidez, zeinean egiaztatu beharko baitzuen jarritako apaingarriek edo aldaketa berriek betetzen zituztela 1987ko kalifikazio-txostenean exijitutako baldintzak.

Gainera, ebazpenean bertan, nabarmendu zen egindako kontroletatik ezin izan zela egiaztatu salatutako burrunba eta zaratek lotura zutenik klimatizazio-sistemarekin, ezta lokalaren hozte-sistemarekin ere, kexagileak iradokitzen zuen bezala. Horrelaxe adierazi zen, nahiz eta ez zen egin inolako probarik egindako zaratak alderatzeko.

24. Udalaren jarduketa horien guztien berri kexagileari eman ondoren, berak berretsi du irauten dutela jardueratik datozen zaratak eta burrunbek eragindako eragozpen larriek. Azpimarratu du 2016az geroztik aldatu direla lokalaren jarduera eta jardueraren sustatzailearen titulartasuna. Horren proba gisa, adierazi du jarduerari izena aldatu zaiola, eta orain (...) dela. Gainera, ziurtatu du 2016ko irailetik zarata handiagoa ateratzen duela eta etengabe hausten duela ordutegia.

Amaitzeko, nabarmendu du Sopelako Udalak bere erreklamazioei erantzuteko, jardueraren funtzionamendua egokia dela esan besterik ez duela egiten.

Aurrekari horiek ikusita, ondorengo gogoeta hauek jakinarazten dizkizut:

Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen helburu nagusia da aztertzea Sopelako Udalak zer jarduketa egin dituen legedian eskatutako betekizunak ez betetzearen ondorioz establezimendu horrek eragindako eragozpenak saihesteko.
2. Horiek aztertu aurretik, Arartekoak argitu nahi du zer eragin izan lezakeen kasu honetan jardueraren sustatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteak uztailaren 24ko 655/2007 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren aurka (ebazpen hartan, eskatzen zitzaion jardueraren funtzionamenduan aurkitutako irregulartasunak zuzentzeko).

Ararteko erakundeak mugatzat dauka jada ebazpen judiziala izan duten edo berau edukiko duten kexen gaineko banakako azterketan esku hartzea (Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legea).

Erakunde hau jurisdikzio-kontrol klasikoaren aurreko pertsuasio magistratura da, eta albo batera uzten du bere funtzioa kexagileek balizko eskubide urratuen jurisdikzio-babesaren alde egiten dutenean. Arartekoaren erakunde-kontrolaren eta jurisdikzio-kontrolaren artean erantzun kontrajarriak egotea saihestea baino ez da horretarako arrazoa, administrazio jarduera jakin bat legezkotasunari egokitzen zaion ala ez ebaluatzeari dagokionean.

Nolanahi ere, komeni da zehaztea herritarrek legebiltzarreko komisario honen esku-hartzea eskatzeko duten eskubidearen muga hori ahalik eta modu ez-murriztaileenean interpretatu behar dela, *favor libertatis* printzipioari jarraiki, defentsa bulego honek herri-administrazioaren gainean duen kontrol jarduerarekin beto orokortu gisa jardun ez dezan praktikan, administrazioaren erabaki zehatzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoren bat jartzea erabaki den kasu horietan.

Adierazi beharra dago ikuskatzailea dela administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa. Epaitegien aurrean aurkeztutako errekurtsok justizia epaitegiek epaitu beharreko egintza zehatza identifikatzea eskatzen du. Dena dela, administrazioaren ohiko jokaerak, askotan, administrazio-jarduerak gainjartzea dakar, bere eskumenen erabileraren bilakaeran. Hau da, administrazio-ebazpen jakin batek prozedura-administratibo bat dakar, dela ofiziozkoa edo aldeetako batek sustatutakoa. Administrazio-ebazpenari errekurtsoa aurkeztu dakiok justizia epaitegien aurrean eta errekurtsok horrek ezinbestean otsailaren 27ko 3/1985 Legearen, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoaren, 13. artikulua aplikatzea dakar.

Irizpide horren arabera, azaldu behar dugu, administrazioarekiko auzi-errekurtsok bat ezarri izanak gure jarduera bertan behera laga beharra dakarrela. Kasu honetan, Sopelako Udalak jakinarazi zigun administrazioarekiko auzi-errekurtsok bat jarri zela jarduera legeriara egokitzeko errekeritzen zion ebazpenetako baten aurka.

Nolanahi ere, horrek ez du eragotzi behar balora ditzagun (gure jarduketaren mugen barruan, betiere) Sopelako Udalak bere eskumen publikoak baliatuz honako xede honekin hartutako beste administrazio-jarduera batzuk: jarduera horren funtzionamendu irregularrak eragin diezaieken pertsonen eskubideen aitortza bermatzea, zehazki, legez kontrako zaratarik pairatu gabe etxebizitzaz gozatzeko eskubidea.

3. Azaldutako aurrekariak kontuan izanik, gogorarazi behar da administrazio publikoek jarduera sailkatuak kontrolatzeko eta ingurumen-legeriara egokitzeko esku hartzeko betebeharra ez dela aukerako kontu hutsa; aitzitik, interes orokorra defendatzeko eta legeriatik eratorritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkion ahalmen publikoak baliatzea da.
4. Jardueren lizentziek behin betiko lotura bat sortzen dute, interes publikoa babestea helburu duena, baimendutako jarduera gauzatzean sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Zentzu horretan, argi geratu behar da jarduera beti interes publikoko eskakizunetara egokitzeko baldintza inplizituaren mendekotzat jo behar dela.

Eskakizun horiek ahalmena ematen diote administrazioari, proportzionaltasun egokiarekin, baimendutako jardueran esku hartzeko, eta jarduleei, ofizioz jardunik ere, beharrezkoak diren zuzenketa- eta egokitzapen-neurriak ezartzeko, jarduerak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko edo, azkenik, emandako baimena ezeztatzeko, interes publikoko eskakizunetara egokitzeko aukera guztiak ahitu direnean; izan ere, bestela, zaintza, segurtasun, bizikidetzeta eta ordena publikoaren arloko betebeharrak nagusiak ez betetzea litzateke.

5. Ingurumen-kontrolerako araudia saiatzen da jarduera sailkatuen funtzionamenduak kalte ditzakeen interes kontrajarriak bateratzen, neurri eta muga multzo bat hartzeko prozedura jakin baten izapidetzeari jarduera horiek ezarriz, eragin ditzaketen kalteak saihesteko.
6. Bizitegitarako hiri-lurzoruan ezarriko diren jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuei aplikatu behar zaizkien arau tekniko orokorrak onesten dituen ekainaren 11ko Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuak, hau ezartzen du zioen azalpenean: foru-erakundeek eskumena dute, jarduera sailkatuen funtzionamenduak kalte ditzakeen ondasunak eta pertsonak babesteko osagarritzat jotzen dituzten behar adina neurri zuzentzaile adierazteko.

Instalazioaren funtzionamenduaren baimena eman ondoren neurri zuzentzaileak sartzeko betebeharra haren Lehenengo Xedapen Iragankorrean dago jasota, non berariaz hau esaten den:



“Dekretu honen eraginpean gelditu daitezten iharduneango ekintzapideek sei hilabeteko epea izango dute eraikuntzen egitura-aldakuntzarik ekar ez dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko. Eraikuntzen egokitze-aldaketa ekar dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu denetik hasi eta hamabi hilabeteko epea izango dute.

Onbideratze-neurri horietakoren bat egiteratzea Udalaren zio eta guztizko iritziz teknikaren aldetik zaila izatea gertatuz gero, onbideratze-neurria egiteratu beharretik iare utzi ahal izango da.

Hala ere, jaurgoduna aldatzea edo ekintzapidea haundiagotzea edo aldatzea gertatuz gero, teknikazko arau hauetan esaten diren onbideratze-neurriak egiteratu-araziko zaizkio”.

7. Gauza bera ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrak, bere 55. artikuluan eta hurrengoetan, baimen bikoitza ezartzen baitu horrelako jardueretarako: jardueraren lehenengo baimen bat, bertan zehazteko ingurumen-kalitate egokia bermatzeko neurri zuzentzaileak; eta, geroago, sustatzailearen jakinarazpen bat, horiek benetan bete direla bermatzeko.

Hala, 59. artikulua hau agintzen du: foru-erakundeek jarduera legeztatze prozeduran edo, hala badagokio, jarduera edonola handitu ondoren, eman behar duten kalifikazio-txostena lotesle dela udal-agintarientzat, bai jardueren lizentzia ematearen aurkakoa denean, bai neurri zuzentzaileak ezartzeko betebeharra zehazten duenean.

Era berean, 59. bis artikulua hau zehazten du: lizentziak ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta lizentzia hori eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badituzte edo, hala badagokio, ofizioz aldatu beharko dira, baldin eta egiaztatzen bada ezarritako neurri zuzentzaileak ez direla nahikoak, ingurumenari, pertsoneri edo beren ondasunei eragin dakiekeen kaltearekin lotuta.

8. Ingurumen-kontrolaren betebehara hori indartuta dago Sopolako Udalaren Lizentzien araubideari eta prozedura-arauei buruzko 2006ko irailaren 11ko Ordenantzan, horretan ezartzen baita ingurumenean eragina duten jarduerak hasi aurretik ezarri behar dituztela ingurumen-kalitate egokia bermatzen duten neurri zuzentzaileak, eta geroago irekitzeko lizentzia batek bermatu behar duela haiek benetan betetzen direla.

Ingurumen-kontrola ez da jarduera hasterakoan soilik egin behar; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio, eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio alde aurretik finkatutako ingurumenaren kalitaterako helburuei dagokienez. Halaber, agindu horrek zehazten du jarduera hasi aurretik udalak eman behar duela nahitaezko baimena, aldeko egiaztapen-akta eman ondoren.

Horrenbestez, horrelako jarduerak etengabe, itxi arte, kontrolatu behar ditu baimena eman duen administrazioak, ingurumenean eragina izateko arriskua baitago une oro.

9. Hala, aipatutako udal ordenantzaren 1.2.7. artikuluan ezarri bezala, emandako lizentziek indarraldia izango dute obraren edo instalazioaren baldintzek irauten duten bitartean. Horrenbestez, ezin da lokalean hobekuntzarik egin, ezta beste elementu edo ekipo gehigarririk gehitu baldin eta kalifikatu zen memorian ez badaude; orobat, ezin da utzi lokaleko sukaldea era irregularrean erabiltzen, harik eta haren instalazioa legeztatu arte; hau da, hura erabiltzea esanbidez baimentzen duen jarduera zabaltzeko lizentzia eman arte eta lokalari ezarritako neurri zuzentzaile berriak eraginkorrak direla egiaztatzen den arte.

10. Obra, instalazio edo zerbitzu baten baldintzei buruzko lizentziak eskualda daitezke, baldin eta egiaztatzen bada horiek bat datozela bere unean emandako baimenarekin, bai egindako aldaketei dagokienez, bai ezarritako neurri zuzentzaileei dagokienez. Halaber, titulartasuna eskualdatzea baimendu aurretik, udalaren zerbitzu teknikoek ikuskatu behar dute establezimendua, jarduerak behar diren segurtasun-baldintzak eta baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

11. Halaber, aipatutako ordenantzak onartzen du jarduera horien ondoriozko eragozpenak konpondua geratu behar direla aireztatze-sistema egoki baten bidez, jarduera-motaren arabera, eta lokalaren isolamendu akustiko nahikoaren bidez: araudian ezarritako soinu-immisioko balioak errespetatu behar dira, eta egiaztatu behar da soinu-iturriak alde aurretik baimendu direla, eta behar bezala ainguratuta eta zigilatuta daudela.

Behar bezala homologatutako egiaztapen bakarrean, 2010ean egindakoa, egiaztatu zen lokalak 63,9 dB(A) eta 64 dB(A) bitarteko aireko zaratarako isolamendu akustikoa zeukala. Maila horiek ez dira iristen aipatutako udal-ordenantzaren 1.3.7. n) artikulua kafe-antzeko, diskotekako eta dantzalekuko jardueretarako ezartzen duen 75 dB(A)-ko isolamendura; areago, taberna, jatetxe, edaritegi, txoko, ardandegi, dastaleku, kafetegi eta antzekoetarako eskatzen duen 65 dB(A)-ko isolamendua baino txikiagoa ere bada.

12. Gainera, dagozkion mugagailuen bidez baimendutako ekipoek sortutako bolumena murrizteak ez ditu konpondu behin eta berriro udalaren aurrean salatu diren zaratak, zeinek eragindako bizilagunei joarazi baititu erakunde honetara zenbait alditan, jasaten dituzten eragozpen larriez kexatzeko.

13. Horri dagokionez, zehaztu behar da alde aurretik baimendutako soinu- ekipoetan potentzia-mugagailuak jartzea nahitaez bete beharreko neurria dela. Halaber, aipatutako udal-ordenantzak ezartzen duenaren arabera, jardueran titulartasun-aldaketarik egonez gero, salmentagatik, eskualdatzeagatik zein alokairuagatik, titular berriak egiaztatu behar du mugagailua eta ekualizadorea daudela, eta dagozkien ainguraketak dauzkatala, eta behar izan gero, horiek instalatu eta ainguratu behar ditu.



14. Kasu guztietan, exijitzekoa da lokaleko soinu-ekipoetan instalatutako potentzia-mugagailuak era egokian kontrolatzea eta egiaztatzea, balizko edozein aldaketa edo manipulazio saiheste aldera.
15. Nahitaezko mugagailuak instalatzeak ez du berez bermatzen araudian ezarritako soinu-maximoak errespetatzen direla. Soinu-ekipoak ez dira zarata- eragozpenak sortzen duten bakarrak. Badaude beste soinu-iturri batzuk ere, jarduera horiek berezkoak dituztenak eta kalte handiak eragin ditzaketenak: jardueraren funtzionamendurako instalatzen den makineria, bezeroen arteko hizketak, materialak arrastaka eroatea.

Horregatik, erabakigarria da lokal hauen aldameneko etxebizitzetako immisio- balioak etengabe errespetatzen direla bermatzea. Horretarako, eragindako bizilagunen salaketa berririk jasoz gero, udal-administrazioek dagozkien neurketak eta egiaztapenak egin behar dituzte. Jarduera bete-betean funtzionatzen ari denean egin behar dira neurketa horiek, ahal dela; batez ere, gaueko ordutegian egiten direnean, eta are gehiago, jarduerak behar adina isolamendu-maila ez duenean.

Bestela, zaila izango da bermatzea jardueraren funtzionamendu jarraituak soinu-immisio mailak ez dituela gainditzen (maila horiek errespetatzea izan zen jarduera instalatzeko eta baimentzeko ezinbesteko baldintza).

16. Bestalde, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 31. artikulua ezartzen du inongo kasutan ezingo dela kontzerturik edo musika-jarduerarik egin, emandako lizentzian baimenduta ez badago. Horiek egitea baimentzen denean, egiaztatu behar da haien gauzatzeak ez dituela aldatzen jarduerak bete behar dituen gainerako baldintzak, bereziki, alde aurretik baimendutako soinu-mailak, aretoaren edukiera, ordutegi-araubidea, lokalaren banaketa eta autobabes-plana, hura behar izanez gero.
17. Halaber, jarduerak dagozkion itxiera-orduak bete behar ditu; horiek ezarrita daude 14/2014 Dekretuan, otsailaren 11koan (jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duenak). Gainera, beti itxita eduki behar dira sarbide-ateak, lokalaren barruko zaratak irten ez daitezen.
18. Kexa honetan salatutako egoerak zuzentzeko, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak udalei ematen dizkie instalazio-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak, baita, hala badagokio, funtzionamendu egokia edo hirugarrenei eragozpenak eta arriskuak saihesteko ezar litekeen beste edozein neurri zuzentzaile kontrolatzeko eta ikuskatzeko ere.

39. artikuluan jasotzen denaren arabera, jardueraren sustatzaileak uko egiten badio exijitutako neurriak hartzera, behar den dokumentazio teknikoa ez aurkezteagatik eragindako kalteak konpondu beharra betetzen ez badu, edo, funtsezko edozein datu zehaztugabea edo faltsua eman badu, edo hura falta bada, udalek galarazi dezakete ukitutako jardueran aritzea, gertaera horiek izan direla egiaztatzen den unetik, kalterik egin gabe sor litezkeen zigor-, zibil- edo administrazio- erantzukizunei.

Gainera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, jarduera baimenduz gero, ezarri ahal izango dituzte behar adina prebentziozko eta kautelazko neurri (bizilagunei eragozpenak eragiten dizkieten elementuak zigilatzea edo kentzea, besteak beste), eragindako kalteak lehenbailehen saihesteko.

19. 55. artikulua eta hurrengoek jasotzen dute udal-administrazioak zehatzeko ahala duela, baldin eta jarduera hasi bada behar bezala legeztatu gabe, edo dagokion aurretiazko komunikazioa egin gabe eta behar bezalako funtzionamendua bermatzeko behar diren baldintza teknikoak bete gabe. Zehatzeko ahal hau gauzatzea xeda ezina da, eta udala behartuta dago dagozkion zehapen-espeditentak abiaraztera, baldin eta jarduera irregular baten datuak baditu.

20. Hala ere, aurreko aurrekarietan egiaztatu denez, aipatutako establezimenduak hasiera-hasieratik ez ditu bete ezarritako neurri zuzentzaileak, nahitaez bete beharrekoak badira ere.

Horren aurrean udalak egin duen esku-hartzeak, haiek betetzeko eskatzeak, alegia, ez du balio izan gabezia horiek zuzentzeko ezta ukitutako bizilagunei eragindako kalteak eragozteko ere.

21. Toki-erakundeek ezin dute inoiz atzera egin ingurumenerako kaltegarriak diren egoeren aurrean, pertsoneri edo ondasunei benetako kalteak eragin arte. Era berean, ezin dute espeditentea luzatu, jarduerako arduradunek jarduera legezkotasunarekin bat etorraraziko duten itzaropenez.

Beharrezkoa da udalak esku hartzea, arrisku-egoera amaitu dadin, eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea eta zuzeneko ardura dutenei neurri horiek hartzeko agintzea.

22. Bistakoa da lokal horiek gatazka larria sor dezaketela eta, are gehiago, sortzen dutela establezimendu-mota horren jarduerak ez badu araudi tekniko- juridiko egokirik, lokalen titularren interes partikularren – haien dibertimenduzko jarduera gauzatzea- eta interes publiko orokorraren artean – establezimendu-mota horien inguruan bizi diren bizilagunen intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea, ezin baita haien lasaitasuna asaldatu lokal horiek sortutako eragozpenen ondorioz-.

23. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak adierazi du etxebizitzetako immisio akustiko gogaikarriek urratu ditzaketela Espainiako Konstituzioaren 15., 18.1. eta 18.2. artikulua; hau da, bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1. art.) eta egoitzaren bortxa ezintasunerako eskubidea (18.2. art.).

Zehazki, aipatu behar da Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 24ko 119/2001 Epaia; horretan hauxe jasotzen da: *"una exposición prolongada a unos determinados niveles de ruido, que puedan objetivamente calificarse como evitables e insoportables, ha de merecer la protección dispensada al derecho fundamental a la intimidad personal y familiar, en el ámbito domiciliario, en la medida en que impidan o dificulten gravemente el libre desarrollo de la personalidad, siempre y cuando la lesión o menoscabo provenga de actos u omisiones de entes públicos a los que sea imputable la lesión producida"*.

24. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak, 2004ko azaroaren 16ko epaian (Gaia: Moreno Gomez vs. Espainia), pertsonak beren etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatu daitezkeen duten eskubidea urratu zela jasotzen da -udal-administrazioak zaraten inguruko araudia behin eta berriro ez betetzea onartu zuen kasu batean-, eta, hala, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotako 8. artikulua urratu zela.

25. Horregatik, Sopolako Udalak beharrezko babes-neurriak hartu behar ditu eskubide horiek urratzen ez direla bermatzeko. Antolamendu juridikoak prebenitzeko eta, hala badagokio, hirugarrengoei eragozpenak edo kalteak eragin diezazkieketen soinu-immisioak prebenitzeko eta, hala badagokio, konpontzeko esleitu dion ahal-eginkizuna ezinbestean erabili behar du organo publiko eskudunak.

26. Arartekoak badaki instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzeak zailtasunak dakartzala eta, horren ildotik, uste du oreka aurkitu behar dela jarduera komertzial edo zerbitzu jarduera arrakastatsuen eta auzotarrek dituzten eskubideen artean: atsedenerako eskubidea eta kalitatezko eta soinu nahasmendurik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidea.

27. Hala ere, kasu honetan dauden egoeren arabera, egiaztatu da udalak egindako errekerimenduak gorabehera ez direla gauzatu exijitutako hobekuntzak, eta, are okerrago, gaur egun ez direla gelditu aldameneko bizilagunek salatutako eragozpen ugariak.

28. Hori dela eta, Sopolako Udalak lehenbailehen zehaztu behar ditu beharrezko baliabideak eta prozedurak, jardueraren inguruan bizi diren auzokoen eskubideak benetan babesteko, eta desagerrarazteko jarduera anormal horrek haien etxebizitzetan eragiten dituen legez kontrako nahasmenduak.

29. Azkenik, egindako erreklamazioei erantzun ez izanaz, Arartekoak gogorarazi behar du administrazio publikoek betebeharra dutela berriazko erantzuna emateko interesdunek aurkeztutako eskaera eta erreklamazio guztiei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua araberara.

Horregatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan agindutakoaren araberara, Sopelako Udalari honako gomendio hau egiten zaio:

Gomendioa

Sopelako Udalak behar diren neurriak har ditzala behin betiko zuzentzeko jarduera horretatik eratorritako irregulartasun guztiak.

Halaber, behar diren hobekuntzak gauzatzen diren bitartean prebentzioz etenaraz dezala jarduera, edo, hala badagokio, bizilagunei eragozpenak eragiten dieten elementuak zigila edo ken ditzala, salatzaileen eskubideak bermatze aldera.

Epea igarota, jardueraren sustatzaileak neurriak bete ez baditu, Sopelako Udalak subsidiarioki zuzendu behar ditu aurkitutako gabeziak, edo lokala prebentzioz ixtea exijitu, errekeritutako hobekuntza guztiak erabat betetzen direla bermatu arte.

Azkenik, Sopelako Udalak tramitatu eta ebatzi behar ditu ukitutako bizilagunek aurkeztutako erreklamazioak.